

OTO ONDOEZ ETA AROTZ

Izen aundiko sendagille batengana joan da Oto eta arek azterketak egin ondoren, gure gizona larritu egin da.

—Jauna, berorrek izen aundia dau eta ordainketak neurri orreteroak ba'dira, nik ez dot izango ordaintzeko dirurik, arlotetxua naz-eta...

—Arlotea zara?

—Naikoa, jauna. Eskalea ez naz; baiña, aberatsa be ez.

—Ez izan orregaitik ardurarik; al dozun eran ordainduko dozu.

—Orretan ba'da, ondo.

—Baditut beste gaixo geiago be lanakin ordaintzen daustenak.

—Ondo, ondo, oso ondo iruditzen jat.

—Begira, bat jostuna da eta neure gorputza jantzi, bear dodanean arengana joaten naz soñekoa egiteko...

—Alan ba'da, niretzako zoragarri.

—Eta, zuk zer lan egiten dozu?

—Ogetxuak eta il-kutxeak.

\* \* \*

Beste bein, Ponponato egoan tabernan, Oto'ren aurrean, bere keixak kontatzen:

—Ezin dot lorik egin: ogean etxunten nazen bakoi-txeko, burutasun larriak etorten jataz burura.

—Zer burutasun?

—Oge-azpian gizonen bat edo piztiren bat egon leikela eta zearo larritzen naz.

—Lorik egin ezin orregaitik?

—Lorik ezin iñondik be...

—Nik emongo dautzut erremedioa-diñotso Oto'k.

—Sendagille sikiatra zara ala?

—Sendagille ez eta beste zer ori gitxiago oraindik.

—Zer zara, ba...?

—Arotza.

—Arotza izanik, zelan osatuko nozu?

—Zure ogeari anak ebagita.

\* \* \*

Illentzako ogetxuak egiten aspertu da Oto eta lanbi-dea aldatu nai. Egunkari batean auxe irakurri dau:

“Erantzun aundiko lana eskeintzen dogu eta gizona

bear dogu berrogei urtekoa, bizitazunez betea eta erabagiak unetxu baten artzeko gai...”

Oto'k berrogei ta bat urte ditu, milla bizibideetan ibillia da, bizia, Australia'raiño joateko erabagia artutakoa eta abar.

—Ara ni emen. Zuen iragarkia irakurri dot eta neu naz zuek billatzen dozuen gizona, Australian be izana naz...

*Bere buruaren goraltzak egiten ekin eban. Lilluratu ebazan entzuleak:*

—Bai, zu zarala uste dogu bear dogun gizona. Asi lanean.

—Bai, orixe; baiña, aurretik itzi egidazue andra Joxepa neure emaztearekin konsultatzen...

Oto gizajoa aroztegira barriro, il-kutxak egitera.

Pototo'rengana joan jaku Oto; bidean eurite batek arrapatu dau eta zearo goitik-beera buztita eldu da Pototo'ren etxera. Idegi dautsoenean gizona alan ikusita onelan diñotso etxeoandreak:

—Baiña, gizona, zelan ez dozu, guardasol edo aterkirik artu urten baiño lenago?

—Aztu egin jat.

—Ez zara gero bidean gogoratu?

—Bai, gogoratu naz.

—Noz, baiña?

—Ementxe, zuen ate-ondoan, itxiten asi nazenean.

\* \* \*

Tutean ekin dabe... Pototok:

—Ik, Oto, kartetan beti erabazten dok; baiña, zaldikinielarik ez dok bat be sekula igarri.

—Bai, ori be alan dok.

—Suerte ezberdiña...

—Bai, nik emen kartak nastetan jakiat; an, ostera, zaldirik ezin nastau.

\* \* \*

Berbetan dagozala. Pototo'ren txakurrak meriendea jan dautso Ototxo'ri eta onek bere aitari:

—Aitatxo, txakur ori poliziakoa da?

—Bai, mutil, Alemania'tik ekarritakoa, oso berezia.

—Lapurretan egin daust.

—Eta, zer? Beste bat artu.

—Poliziakoa ba'da, zelan egiten dau lapurretan? Izena ondo ipiñita dauala uste dozu?